

ARGAZKIAK

Asteburua Deban pasatu nahi duela esan dio Migelek Estherri. Eta Estherri Gorka etorri zaio burura. Lagunekin irteteko planen bat eginda izango ote duen. Eta Iker, Ikerren larunbatetako saskibaloï partida.

Mutilek, jada, ez dute Debara joan nahi izaten. Txiki-txoak zirenean bai. Hango plazetan bakarrik ibiltzea zuten gogoko, erlojuari kasurik egin gabe lagunekin kale estuetan barrena galtzea. Baina orain aspertu egiten dira. Umetakoko laguntxoak jada ez dira bene-benetako adiskideak, eta hondartza gainaldean paseatzea edota surf saialdiren bat egitea ez da plan nahikoa.

Badaki mutilek ez dutela Debara joan nahi izango baina, konpromiso berezirik ez badaukate, Estherrek jakingo du mutilei sakrifizio txiki bat egiteko eskatzen. Migelek hori baino gehiago merezi du. Argi utzi izan die beti semeei, momentuak daudela lagunekin ibiltzekoak eta momentuak familiarekin egotekoak. Uneak bereiztekoak.

–Argazkiak ikusi nahi ditut –esanez azaldu dio Migelek Debara joan nahi izatearen arrazoa.

Hori entzutean, historiaren atea irekitzea bezala izan da. Egunerokotasunaren trenean ahaztua zuen euren istorio partikularraren atea zabaltzea. Hamalau urte bete berri dituzte ezkondua. Debara ezkondu ziren, garai hartan Elgoibarren egiten zutelako lan biek. Eta, urte batzuk geroago, Estherrek lana aldatu zuenean joan ziren Donostiara bizitzera, Gorkak hamar eta Ikerrek zortzi urte zituztela.

Garai zailak izan ziren. Estherrek lan berriari eskua hartu behar, Migel egunero joan-etorrian Elgoibartik Donostiara, eta mutilak, ikastola berrira ohitu eta lagunak egin beharrean. Iker berehala ohitu zen baina ez hala Gorka. Horregatik, hasierako urteetan, asteburu bueltatzen ziren Debara. Migel eta Esther lasaitu egiten ziren umeak gustura ikusita. Eta lasaitu mutilak, lagunak eta familiar-tekoak hurbil sentituta. Ezkonberritan asteburuetan amaginarrebaren etxera bazkaltzera joatea bezala zen: pozik bikote gaztea bazkaririk prestatu beharrik ez zuelako, eta pozik amaginarreba eta aitaginarreba, astean zehar hutsik gelditzen zitzaien etxea beteta ikusiko zutelako. Harik eta, poliki-poliki, Donostian gero eta denboraldi luzeagoak egiten hasi ziren arte.

Mutilak asteburuetan Donostian geratzen hasi zirenean, Debako etxea oporretako bizilekutzat jo zuten eta bertan utzi zuten, giltzapean, Donostiara joan arteko bizitza osoa, ezkontzako eta umeen txikitako argazki albumak barne.

Estherrek ondotxo daki, Debara joaten direnean, gogoko izaten dutela argazki albumak atera eta lauren artean berrikustea. Argazki oinak irakurtzea. Deban zoriotsuak izan zirela gogoratzea.

–Zure gau-mahaiko argazkiak ikusi nahi ditut –argitu dio, ordea, Migelek Estherri.

Esther zur eta lur utzi du Migelen eskabideak. Hama-sei urte daramatzate Migelek aipatzen dizkion argazkiek Debako bere gau-mahaian, gutun-azal marroi batean sartuta, eta Migelek ez ditu sekula ikusi nahi izan. Noizbait pentsatzera heldu izan da Esther, bera etxean ez zegoen momenturen batean Migelek begizatuta izango zituela. Ez dela normala, hainbeste urtetan, tentazioaren aurrean men egin ez izana. Ez dela ohikoa zalantzarekin edo egia osoa ezagutu gabe konformatzea. Etsaiari aurpegirik jarri gabe. Begiak ixtearekin ez direla mamuak uxatzen.

Estherrek sarritan pentsatu izan du Migelek askotan galdetu behar izan diola bere buruari Fernando nolako zen, noizbait berarekin kalean tope egin ote duen, orain nondik nora ote dabilen, berriro Estherren bizitzan agertuko den edo...

Estherrek ezingo luke galdera horiei erantzun gabe bizi, bere gizonaren maitalearen aurpegia ezagutu gabe kalera atera.

Baina senarrak ez du sekula interes txikienik ere agertu.

Migelek Fernando nor zen jakin nahi ez izateak amorrazioa eragin zion hasieran Estherri. Axola ez balitzaio bezala zen. Existituko ez balitz lez. Fernando maitatu izana momentu jakin bateko kapritxo hutsa izan bailitzan.

–Gizon interesgarri bat ezagutu dut –esan zion Estherrek, ingurumaririk gabe, Frankfurteko azokatik bueltatu zenean.

Migelek berehala interpretatu zituen Estherren hitzak. Bazekien zer esan nahi zion “interesgarri” adjektiboarekin.

Bazekien Esther ez zela hitzek ziotena baino harago joan. Baina bazekien, baita ere, esaldiaren azpian mehatxu bat zegoela lo, berak izango zuen erreakzioarekin esnatzeko zain. Horregatik, isilik gelditu zen Labatai tabernako mostradorearen argipean. Ez zen leku aproposa gaiaz hitz egiteko. Baina Estherrek ez zituen detaile horiek zaintzen. Berdin izaten zitzaion jendaurrean negar egitea, baldin eta ez bazen ondo sentitzen. Edota Migel tabernan bakarrik utzi eta etxera bueltatzea, aspertzen hasten zenean. Ez zen Esther gorde beharrekoak zaintzen dituztenetakoa.

–Gizon interesgarria bada, aukerari ezin diozu ihes egi-
ten utzi –erantzun zion Migelek, zer esan pentsatzeko tarte
luze bat pasatzen utzi ondoren.

Ez zen Estherrek espero zuen erantzuna. Migel hase-
rre irudikatu zuen. Lur jota. Barkamen eske. Aldatu egin-
go zela zin egitea espero zuen. Ustez amua irentsi duen
aingirak nola alde egiten duen sumatzean sentitzen den
urduritasunak eta ezintasunak harrapatuta ikustea espero
zuen. Baina ez. Migelek ez zuen ezer aldatuko. Ez zuen ezer
egingo. Alderantziz. Estherri luzatu zion aldatzeko gonbita.
Mugitzekoa. Esperimentatzekoa. Huraxe, bere maitasun
froga. Eta lasai geratu zen, gainera. Eskuzabal jokatu zue-
lakoan. Mamuak dantzan utzita.

–Fernando du izena –jakitera eman zion Estherrek,
Migelek eskatu ez zion informazio gehigarria, maleta egin
eta berriro Frankfurterako txartela eskuan.

Hegazkinean sartu zenean, amorrazioa eta askatasuna
sentitu zituen batera. Amorrazioa, Migelek ez zuelako berak
espero zuen erreakziorik izan. Eta askatasuna, esperientzia
berri bat bizitzeko erabakia hartu zuelako.

Migeli Fernando ezagutu zuela esan zionean, ez zegoen bere buruan Fernandorekin harreman berri bat hasteko asmorik. Bere ideia Migel berreskuratzea zen. Migelekiko sentitzen zuen maitasunak ziurtasuna ematen zion eta ez zuen gehiago eskatzen: maitasun hura betirako izango zela bermatuko zion keinu bat besterik ez.

Ez zen hala gertatu.

Eta hala ere, bere harridurarako, ez zitzaion mundua gainera erori. Ez zen galduta sentitu. Alderantziz. Indarberritu egin zuen esperientzia berri bat bizitzeko aukera izatearen ideiak. Ez zuen bere burua ezagutzen. Arriskua hartzeko prest zegoen. Ez zekien ondo zer arrisku mota. Baina muturreko egoerak kitzikatu zuen. Amildegiaeren ertzean eroso sentitzen hasi zen, behingoz.

Frankfurtera heldu zenean, Fernando zain zuen aireportuan. Eta hark alokatuta zuen loft-era joan zen bizitzera. Erraza izan zen. Inori azalpenik eman beharrik gabe hartu zuen erabakia.

Bere buruari ez ziola galderarik egingo agindu zion. Eta ez ziola inori ezer zor sinetsi zuen.

Garai hartakoak dira gau-mahaiko tiraderan gordeta dituen argazkiak, Fernandorekin Berlinera egindako bidaia batean ateratakoak. Galtza bakeroak daramatza soinean Estherrek, zegoen baino argalago ematen diotenak, Fernandoren eguzkitako betaurrekoak, eta Donostian inola ere jantziko ez lukeen niki gorri deigarria. Argazkietan aktorea dirudi.

–Zu al zara, ama? –galdetu zion Ikerrek tiraderak txukuntzen aritu zen batean, gutun-azal barruko argazkiak

atera eta hauei begira harrapatu zuenean—. Oso zoriontsua dirudizu.

Eta bai, hilabete haietan zoriontsua izan zela gogoratzen du Estherrek. Beste emakume bat. Gaztea zen eta edozein erabaki hartzeko unean zegoen. Alemanian bizitzen gelditzeko aukeraz ere pentsatu zuen. Fernandok galdetu zionean ea lan bila Alemanian hasiko ote zen, *ez zion ezezkorik erantzun*. Familiarengandik urruntzea ez zela arazo bilakatuko pentsatu zuen eta ohiko bizitzak sortutako loturak apurtzeko tentazioak gaingitu zuen.

Korapiloak askatzea, ordea, *ez da erraza*. Eta Fernandok ere, lehen musua eman bezain laster igarri zion. Esther ez zen askea. Ez zekien amildegiaren ertzean ibiltzen.

Ez zegoela prestatuta erantzutea otu zitzaion Estherri, arrazoa besterik bazen ere. Migelen irudia zen Fernandorekin aurrera egiten uzten *ez ziona*. Migel hain presente izatea. Fernandoren besoetara berak bultzatu zuela gogoratu arren, Migelekin irudikatutako bizitzak erakartzen zuen. Faltan botatzen zituen abentura dosiekin, baina Migelekin. Migelek ez zuen Estherrekin moztu. Eta berak, Fernando ezagutzeko gonbita onartu besterik ez zuen egin.

—Beste harreman batetik nator —azaldu zion Estherrek Fernandori.

Ezkontzera zihoala esatea otu zitzaion. Den-dena zutela prest. Elizkizuna, eraztunak... eta soinekoaren bila joateko eskatu ziola bikotekideari, lanetik berandu ateratzen ari zelako ezkontaurreko astean. Soinekoarekin etxera bueltan zetorrela, kotxea bidetik atera eta istripua izan zuela eta ospitalera heldu aurretik hil zela.

–Banekien! –moztu zuen Fernandok Estherrek kontakizunari jarritako puntu dramatikoa–. Banekien sekretu handi baten jabe zinela! Tristurak salatzen zaitu!

Estherri begiak gorritu zitzaizkion. Tristurak salatzen omen zuen. Ez gezurrak. Ez zuen bere burua ezagutzen.

Ez zitzaion egia bizitzerik interesatzen, ordea. Ametsa baizik. Eta, behar zuen abentura gosea Migelek asetzen ez bazion, ez zen ametsik bizi gabe geldituko. Fernandorekin jarraituko zuen.

–Misterio horrek egiten zaitu erakargarri –onartu zion Fernandok.

Estherrek gorroto zuen bere burua. Konturatu orduko, Migel ezabatzea lortu zuen. Telenobela bateko protagonista bailitzan desagerrarazi ere. Eta telenobelagilearen boterea sentitu zuen, handik aurrera amesten zuen istorioa bizitzeko aske. Orriak galdu dituen liburua zen, enegarren kapituluan.

Frankfurtetik bueltatu zenean, ez zion inolako azalpenik eman Migeli, eta Migelek ere ez zion inolako argitasunik eskatu. Arraroak egin zitzaizkion Estherri Migelek gertatuarekiko hartu zuen distantzia eta erakutsitako hoztasuna. Erosoa zen, bestalde. Antzua baita ulertu ezin diren sentimenduak azaltzeko saiakera; bulkadaz espermentatutako bizipenak azaltzen tematzea. Aise gelditzen dira airean dantzan. Aise, une zoriontsuak gordetzen dituen argazki albumaren azalean, pisurik gabeko hautsa bezala.

–Frankfurtetik ekarritako argazkiak ikusi nahi? –luzatu zion Estherrek gonbita, gehiago ez zela Alemaniara bueltatuko erabaki zuela adierazi zionean Migeli.

Migelek ez zion interesik agertu. Eta Estherrek, askatasunez bizi izandako abenturaren azken kapitulua zela ulertu zuen. Bakarrik berea.

–Gau-mahaiko tiraderan utziko ditut –jakinarazi zion Migeli–, nahi duzunean ikusteko.

Ez zuela sekreturik gordetzen agertu nahi izan zion Estherrek. Amildegitik betirako bueltatu zela. Askatasunak barkamenik eta bakerik ez dakarrela ulertzera heldu gabe.

–Fernando ezagutu nahi dut –aditzera eman dio, hainbeste urteren ondoren, Migelek–. Nolako aurpegia daukan ikusi. Berari aurre egin.

–Zeini aurre egin, Migel? –galdetu dio Estherrek, haserre eta urduri, biak batera–. Hamasei urte pasatu dira eta orain Fernandoren aurpegia ikusi nahi duzula? Zertarako orain hautsak harrotu?

Psikologoak mamu zaharrei aurpegia jarri behar zaiela adierazi diola diotso Migelek Estherri. Mamuak ez direla sekula aske utzi behar, katerik gabe, erantzunik gabeko galderak bezala, eta hautsa lez, ez dagokien lur eremua konkistatzen.

–Argazkiak gau-mahaian gordetzen ditudala esan diozu psikologoari? –arrapostu egin dio Estherrek haserre–. Ez zinen ausartuko, ala?

Migelek ezezkoa egin dio buruarekin. Argazkiena bere ideia izan dela.

–Esan dizut, neure mamuei aurre egiteko besterik ez dela! –azpimarratu du Migelek.

Migel ez zitzaion behin ere Frankfurtera bisitan joan. Eta Estherrek telefonoz deitzen zionean ere, hark ahots tristez erantzuten zuen. Esateko ezer ez daukanaren gogo

gabeziaz. Telefonoaren aurikularra hartzeak ere gogaitu egiten zuela erakustez arduratu gabe. Asteburuak infinituraino luzatzen zitzaizkion Estherri; noizbehinka, maitasunak bustitzen ez duen itsasoan bainatzeraino.

–Berriro saiatu nahi dut –esanez deitu zion Migelek, Esther Alemaniatik bueltatu baino bi aste lehenago–, berriro hutsetik hasi.

Eta berriro hastearen ideiak limurtu egin zuen Esther. Ezin izan zuen ekidin pentsatzea zerk maiteminarazi zuen. Zergatik erakartzen zuen Migelek. Migelen aurrera egiteko kemena zela esango zukeen. Erori eta altxatzeko indarra. Errautsetatik berriro hegaldatzeko borondatea. Irauteko gogo bizia. Bera ez zena zen. Berak bizia emango baitzukeen pasioz betetako gau bategatik. Biharamunean pentsatu gabe. Amildegiaeren ertzean ibiltzen lagunduko zion eskua nahi zuen Estherrek baina, momentua heltzean, amildegitik babestuko zuena. Biharamunaz hitz egingo ziona.

Berriro hasteko ahalmena ikusten zion Migeli. Ondo zekien arren bigarrenez egiten diren itzuliak ez direla lehenengoak bezalakoak izaten eta harritzeko gaitasuna galtzen dutela errepikatzen diren istorioek eta fantasiek, ametsek bezala.

Estherrek beragatik maitasuna gerlarien antzera defendatzen irudikatu zuen Miguel, baiezkoa eman zionean.

–Ez dakit zertarako atera zinen Fernandorekin –aurpegiratu dio Estherri Migelek–. Nik maite zintudan.

“Halako batean ausartu da” pentsatu du Estherrek “sentitzen duena esatera”. Leioa ireki zaio. Ganbara. Egiarako bidea. Berak ere gibeleraino sartuta duen arantza ateratzeko momentua iritsi da, azkenean.

–Hil egin zinelako –bota dio labur bezain lehor.

Migelek ezin du Estherrek esandakoa ulertu eta Estherrek badaki. Baina “hil” hitza erabili nahi izan du, apropos, bera ere halaxe sentitu izan delako: hilda. Aukera eman dion bakoitzean. Zerotik hasi diren une oro. Promesek huts egin dutenean.

Eta bai, hil egin zela esan dio. Berak hainbestetan ezagutu duen laborria sentitu dezan nahi du, hainbestetan antzemandako indiferentzia nozitzea, hainbestetan pentsatutako ihesean pentsatzea...

–Ezin dut gehiago zalantzarekin bizi –bota dio Migelek, Estherren esaldian arretarik jarri gabe–; ezin dut egia ezagutu gabe jarraitu...

Estherri bat-batean begiak piztu zaizkio. Migelen hitzen doinua ezagutzen du. Poztu eta larritu egin da batera.

–Etsaiari aurpegia jarri nahi diot, Esther –jarraitu du esanez Migelek.

Hitzok ezagunak egin zaizkio Estherri. Ezagunegiak. Hain ezagunak, ezen bere egunerokoa idatzi zituenak direla konturatu baita.

Erreflexu inkontziente batez, kotxeko giltzak hartu ditu. Estherri Debara joateko premia sortu zaio. Mesanotxean utzi zuen egunerokoa han ote dagoen egiaztatzekoa.

–Egunen batean Fernandorekin topo egiten badut, jakin egin nahiko nuke bera dela –esanez jarraitu du Migelek.

Bai, hitz horiek bereak dira.

Sukaldea utzi eta logelan sartu da Esther. Mesanotxeko tiradera ireki eta egunerokoa ikusi du bertan.

–Irakurri dut hori ere, Esther –entzun du atzetik Migelen ahotsa–. Eta ez, ezin dut galderei erantzun gabe bizi.

Estherrek gauza bera pentsatu du. Ezin duela gehiago galderarik egin gabe bizi. Bizkarrezurrean barrena hotz dardarak harrapatu du. Izerdi likinak.

Kotxeko giltzak hartuta nora ote zihoan galdetu dio bere buruari. Zergatik giltzaperatu dituen mamuak tiraderetan...

–Nik egin diot mamuari aurre, Esther –erantsi du Migelek–. Eta zuk?

Estherrek mutilei ez die sakrifiziorik eskatuko. Ez dira asteburuan Debara joango. Estherrek badaki, ondotxo jakin ere, unek bereizten.

